



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

**2010eko OTSAILAREN 26KO OSOKO
BILKURAREN ERABAKIAK**

**24. Eusko Legebiltzarraren adierazpen
instituzionala, Orlando Zapataren heriotza
dela-eta**

Eusko Legebiltzarrak, gaurko bilkuran, ondorengo adierazpen instituzionala onetsi du, gose greban 85 egun izandako Orlando Zapata kontzientzia-presoarean heriotza dela-eta.

- 1.- Eusko Legebiltzarrak bere samina adierazten du Orlando Zapataren heriotzagaratik eta bere elkartasun eta dolumin sakonena adierazten die haren senitarteko eta lagunei.
- 2.- Eusko Legebiltzarrak, munduko edozein tokitan gertatzen diren askatasun politikorik eza eta giza eskubideen urraketak etengabe gaitzestearekin koherentea izanik:

Uste du amaiera tamalgarri hau Kubako Gobernuaren politikak giza eskubideak ez errespetatzearen ondorioa dela.

Adierazten du oso kezkatuta dagoela Kubako askatasun politikorik ezagatik eta disidente politikoen errepresioagatik, herrialde horretan aniztasun politikoa aitortzearen alde egiten du, eta elkartasuna adierazten dio Kubako oposizio demokratiko eta baketsuari.

Kubako Gobernuari gogorarazten dio giza eskubideak eta askatasun demokratikoak errespetatzea ezinbesteko osagaia dela herrialdeen aurrerapenean, eta eskatzen dio ireki dezala demokraziarako trantsizio prozesu bat, zeinetan errespetatuak izango diren Kubako hiritar guztien giza eskubideak.

**ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO EL 26 DE
FEBRERO DE 2010**

**24. Declaración institucional ante la muerte de
Orlando Zapata**

El Pleno del Parlamento Vasco, en su sesión de hoy, ha aprobado la siguiente declaración institucional, ante la muerte del preso de conciencia cubano Orlando Zapata tras 85 días en huelga de hambre.

- 1- El Parlamento Vasco lamenta la muerte de Orlando Zapata y muestra su solidaridad y la más profunda condolencia a su familia y amigos.
- 2.- En coherencia con su permanente condena de la falta de libertades políticas y de las vulneraciones de los derechos humanos en cualquier parte del mundo, el Parlamento Vasco:

Considera que este lamentable desenlace es consecuencia de la política no respetuosa de los derechos humanos del Gobierno cubano.

Manifiesta su honda preocupación por la falta de libertades políticas y la represión de la disidencia política en Cuba, aboga por el reconocimiento de la pluralidad política en este país, y expresa su solidaridad con la oposición democrática y pacífica en Cuba.

Recuerda al Gobierno cubano que el respeto a los derechos humanos y las libertades democráticas forma parte esencial del progreso de los pueblos, y le insta a abrir un proceso de transición a la democracia en el que sean respetados todos los derechos humanos de todos los ciudadanos y ciudadanas de Cuba.





3.- Azkenik, Eusko Legebiltzarrak Kubako Gobernuari eskatzen dio, aske utz ditzala, baldintzarik gabe, une honetan espetxeratuta dauden kontzientzia-presu guztiak.

3.- Finalmente, el Parlamento Vasco insta al Gobierno cubano a liberar incondicionalmente a todas las personas encarceladas en la actualidad en calidad de presos de conciencia.

